

# DEKALOGOIA

## – ZURE KOMUNIKAZIO PLANA DISEINATZEKO PAUSOAK –

- 1.** Komunikazio- plana komunikazio arloan jarraitu behar den **ibilbide-orri bat** da. Bertan lortu diren komunikazio- helburuak zehazten dira, hori lortzeko jarraitu beharrezko pausoak eta denbora epeak.
- 2.** Proiektu batek bere komunikazio- estrategia garatzeko erabiltzen duen kanalaren arabera, **bi motatako planak daude**:
  - Offline komunikazio-plana: mundo fisikoan gauzatzen diren estrategiei dagokie
  - Online komunikazio- plana: internetez baliatzen diren estrategiei dagokie
- 3. Offline estrategiarako** milaka tresna daude, ausarta zaitetz eta erabili formatu eta diseinu berriak zure proiektuaren identitatea eta nortasuna komunikatzeko: karteleria, eskaparatea, eszenatokia, dekorazio elementuak, material grafikoak erakusteko elementuak, etab.
- 4. Online estrategia** eraginkor bat izateko antolaketa da. Ez badakizu nondik hasi edo ez badakizu nondik jarraitu, plan baten beharra duzulako argi eta garbi dago. Helburuaren arabera era formatu, egutegu edo lan dinamika desberdin bat behar duzu, bestela zure esfortzua alferrikakoa izango da.
- 5.** Ahal den neurrian bi plan motak konbinatzeko oso onuragarria izan daiteke proiektu batentzat. Zergatik? Egiten duzun guztiak zerbait transmititzen duelako. Erakusten duzunak, esaten duzunak eta hori esateko moduak, erabiltzen duzun lekuak, irudiak, etab. **denak transmititzen du** zerbait.
- 6.** Planaren izaera bat ala beste izan, helburu oso zehatzak definitu behar dira. **Ohiko akatsa** helburu oso orokorrak jartzen datza, egindako esfortzuen emaitzak lausotzeko arrikusa egonez eta honek sortu dezakeen frustrazioak komunikazio esfortzua bertan behera uztera bultzatu dezake.
- 7.** Inspirazioa, **erreferenteak** eta benchmarking-a. Beste erakunde edota proiektu arrakastatsu batzuek egiten dutena behatzeak norberaren proiektuan aplika daitezkeen ideia eta ikuspegi berriak eragiten ditu. Identifikatu inspiratzaileak iruditzen zaizkizun proiektuak eta kontuan izan jardunbide egokiak jarraitzen dituztenak.
- 8.** Prestatu zure proiektuaren **komunikazio plan mihisea**: helburua, bisioa, publikoa, zure indar eta ahuleziak, mezuak, komunikazio kanalak, formatuak, kide interesgarriak, denbora epeak.
- 9.** Zure ibilbide orria jarraitzeko lagungarriak daitezken hainbat **tresna digitalez baliatu** zaitetzke: Pinterest, Canva, Midjourney, Wordpress, Elementor, Mailchimp, Metricool, etab.
- 10.** Galdu beldurra eta **jarri martxan** zure plana! Pausoz-pauso, zure buruari mugarik jarri gabe, baina etengabea izanik, eraman Aurrera zehaztu duzun urrats bakoitza. Pausoak betetezean joan ahal gero eta segurtasun gehiago izango duzu eta edozein komunikazio erronkari aurre egiteko gai izango zara!



Irudia. Silvia López de Lacalle Gurruchaga

## **Nola komunikatu zure proiektua. Komunikazio estrategia eraiki**

**K bulegoa**-k prestakuntza-saio bat antolatu zuen 2024ko apirilaren 28an Gipuzkoako kultura-eragileentzat, proiektu bakoitzerako komunikatzeko modu desberdinak identifikatzeko. Ereduetatik eta praktika onak lortzen dira, proiektuetarako komunikazio-estrategia eta -teknika desberdinak dituzten mezuak diseinatzeko, ekoizteko eta transmititzeko hainbat gako.

**MAIO studioko** Maialen eta Maitek gidatu zuten saioa. Ekitaldiak, esperientziak, komunikazio-kanpainak eta komunikazio-elementuak diseinatu eta ekoizten dituzte eta, ahal den neurrian, elementu horiek eskuekin sortzen dituzte.



### **K bulegoa** Ibilbideak

Kultura-proiektuak prestatzeko eta indartzeko mugarri monografikoak

## **KOMUNIKAZIO PLAN MIHISEA**

### **KOKALEKUA**

Zure proiektuaren egoera aztertu, DAFO (Indarrak / Ahultasunak / Aukerak / Mehatxuak)

### **IKUSPEGIA**

Nora nahi duzu iritsi? Non ikusten duzu proiektua epe muga bat barru? Zein da proiektuarentzat duzun ametsa?

### **PUBLIKOA**

Nongoak dira? Zenbat urte dituzte? Zer egiten dute? Zein dira haien beharrak?

### **FORMATUAK**

Landu beharreko edukiak: argazki saio bat? Testuak?

### **MEZUAK**

Zein mezu mota baloratzen du zure publikoak? Copy-a, estiloa, tonua...

### **EPE MUGA**

Epe mugak garrantzitsua dira, jarraitu beharreko pausoein plan bat sortu eta joan betetzen betebeharrak horiek epe bakoitzean.

### **HELBURUAK**

Zer lortu nahi duzu? Erosle gehiago, babesle berri bat... Helburuak espezifikokoak, lorgarriak, errealistak eta iraupen mugatukoak izan behar dira.